

Chaplinen maleta

Joxean AGIRRE

Ideologia zer den agertzeko, irudi bikain bat erabili zuen Wislawa Szymborska poetak Goethe saria jaso ondoko hitzaldian: Chaplin maleta egiten ari da bere filmetako batean, baina arropak gainez egiten dio. Gainean eseri eta ixtea lortzen duenean, mahuka batzuk geratzen zaizkio kanpoan eta gurai-zeak hartu eta moztu egiten ditu.

Denok moztu ditugu gure ideologiaren maletan kabitzen ez diren errealitate zatiak. Eta errealitatea aldatzen denean maleta egokitu behar izaten dugu. Batzuk maleta berri baten bila joaten dira. Lehen txaketeroak deitzen zitzaaien, orain transfugak. 68ko Maiatzaren ondoren ez ziren gutxi izan. Estatu espainiarreko Trantsizioan ere ez. Migrazio kasu horiek bitxiak dira eta migrazioa kolektiboa denean fenomeno ikusgarria izan daiteke.

Pruden Gartziak iaz atera zuen bere “Euskaldun fededun” liburu ederrean,

bukaerako atala eskaintzen die Nafarroak azken mende honetan eman dituen sigi-saga ideologikoei. “Nafarroa, iraultzaletasunetik abertzaleatasunera, maoismoa gaindi” deitu dio atal horri, eta horretarako Imanol Satrustegiren “Beste mundu bat nahi genuen: Nafarroako ezker iraultzailea, 1970-1979” izeneko doktorego-tesiaren moldaketa liburu darabil.

Labur esateko, Espainiako II Errepublikaren garaian eskuineko bloke integristak botoen %60-70 atera zuen. Bloke hori antidemokratikoa, klerikala, profaxista eta biolentziaren aldekoa zen. Baina lurralde horretan bertan 30-40 urte geroago iraultzaren aldekoak ziren hainbat alderdi (leninistak, troskistak, maoistak..) hegemonia bat izatera iritsi ziren gizartean, mobilizazio ahalmen izugarria zutelako, eta lehen hauteskunde gutxi gorabehera libreetan (1977) Eu-

ropako inongo eskualdetan baino babes handiagoa lortu zuten botoetan, zehazki botoen %17,68 (45.676 boto; alderdi irabazleak, Suarezenak, 75.036 atera zituen bitartean). Europako barruti arrakastatsuenetan ere %2-3 tartean ibili izan ziren. Eta nondik zetozen ezker iraultzaileko militante andana horiek? Kristau mugimenduetatik.

Pruden Gartziak aipatzen duen Imanol Satrustegiren lan horrek ezker iraultzailearen gainbehera ere aztertzen du, eta hor hasten da ezker abertzalearen gorakadaren abiapuntua Nafarroan. Badirudi “trasbase” argi bat eman zela ezker iraultzailetik ezker abertzalera.

Ez hainbestekoa, baina “trasbase” txiki bat ematen ari da Ipar Euskal Herrian ere indar abertzaleen alde. Ipar Euskal Herriko Aberri Egunera joateko ohitura dugunok kontu hori ikusteko abagunea izango dugu Garazin bihar zortzi. •

Bekatuan eta uros

Maddi AIESTARAN
IPARRAGIRRE

Bekatuan uros bizitzeko aldarrria hedatuko da gaur, hirugarren urtez jarraian, Atharratzeko kaleetan, Bekatu’uros egunean. Gorputz eta ahots disidentez, bekatz, girgileriaz, koreografiaz, sare transfeministaz beteko dira Zuberoako bazterrak. Egun oso batez, hantxe juntatu izana ospatuko dugu, elkar ezagutuko dugu, elkarrekin kantatuko, dantzatuko dugu, sarea sendotuko dugu. Akordatu gara iazko ekainean Prefostan agertu ziren pintaketa homofoboei; adoretuko gara hurrena ere halakoei ozen eta fuerte erantzuteko. Egun polit-polit bat pasatuko dugu, indarra emango diguna, bihar-etzi norbera bere

etxera itzulitakoan, honetan sinesten jarraitzeko.

Aldi berean, beste puntan, Plentziako Danontzat gaztetxean, Uribe Kostako Ukatu sexu-genero disidenteen asanbladaren sei urteko ibilbidea ospatuko da. Egun oso batez, iritziak konpartituko ditugu, poesiaz gozatuko dugu, elkarrekin kantatuko, dantzatuko dugu, lagun berriak egingo ditugu, topa egingo dugu sei urteon alde, eta datozenen alde ere bai, jantziko gara nahi bezala, eta erantziko, hantxe juntatu izana ospatuko dugu elkarrekin.

Ez da kasualitatea bi festaok bat egin izana. Elkargune, topaketa, jaialdi kuirrez josi dugu urtearen lehenengo erdi

hau. Kuirrez, transfeministaz, *desbiauz*, bekatoroz. Prestatu dira hitzaldiak, mahai-inguruak, tailerrak. Atera dira karroak, marianitoak, bozgorailuak kaleetara. Hitz egin da gai konplikatuen inguruan. Ekarri dira dantza pauso berriak pistara. Sendotu dira harremanak, eta beraz sareak, eta beraz estrategiak.

Aurreko asteetan Andoainen, Iurretan, Bilbon, Ondarroan nola, Atharratzen eta Plentzian elkartu gara gaur. Eta jarraituko dugu elkartzeko; kaleak hartzen, normak puskatzen, aldarriak hedatzen, bekatua goratzen, heteroraua ukatzen. Eta elkarrekin egun polit-politik pasatzen, bekatuan eta uros. •